

BUSTURIALDEKO EUSKARAREN HIZKUNTZA- ALDAKORTASUNA DENBORAN ETA ESPAZIOAN 1830-1936

Tesiaren egilea: Ariane Ensunza Aldamizetxebarria

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: Gotzon Aurrekoetxea Olabarria

Tesiaren laburpena:

Ikerketa honen helburua Busturialdeko hizkuntza-aldakortasuna aztertzea da. Horretarako, Busturialdea osatzen duten 20 herrietako euskara aztertu da eta elkarren artean konparatu dira, eremu geografiko honetan dagoen bariazioa nola gertatzen den hobeto ezagutzeko. Izan ere, lan honek helburu bikoitza izan du: alde batetik, Bizkaiko erdialdean dagoen Busturialdea eskualdean gaur egun herrien artean dagoen bariazioa aztertzea; eta bestetik, adin desberdineko hiztunen artean dagoen hizkuntza-aldakortasuna aztertzea; bestela esanda, Busturialdean bai geografikoki bai soziolinguistikoki dagoen aldakortasuna aztertu da. Horretarako, gaur egun bai euskara estandarren eraginagatik, bai auzo-hizkeren eraginagatik aldatzen ari diren 19 hizkuntza-aldagai izan dira aztergai. Nolanahi ere den, ez da lan honen helburua mendebaldeko euskalkien (edo, oro har, euskalkien) sailkapena egitea, hain eztabaidatua izan den eskualde honetako euskara deskribatzea, eta bertan dagoen eta egon den aldakortasuna azaltzea baizik.

Busturialdeko hizkeren dagokionez, gure datuetan oinarritutako cluster analisiek erakusten dute bai helduen hizkeran, bai gazteenean, hiru multzo nagusitan banatzen direla: Busturialdeko erdialdeko hizkerak, kostaldekoak eta ekialdekoak. Oro har, kostaldeko hizkerak Bizkaiko kostaldeko gainontzeko hizkerekin lotura estua dutela ondorioztatu ahal izan dugu eta, era berean, horiek hurrago daudela Zuazok sortaldeko azpieuskalki gisa sailkatutako hizkeretatik, sartaldekoetatik baino. Bestalde, Busturialdeko ekialdean kokatutako hizkerak ere sortaldeko azpieuskalkietatik hurrago daudela ikusi dugu. Azkenik, Busturialdeko barnealde-erdialdeko hizkerak, sartaldeko azpieuskalkitik hurrago daudela ondorioztatu dugu. Izan ere, herri edo hizkera guztiak eskualde beraren parte badira ere, ekialdeko herrien harremanak errazagoak dira Lea-Artibaiko herriekei edo kostakoekin. Hori dela-eta, uste dugu hizkerak ikertzeko orduan egokiagoa litzatekeela muga administratiboak albo batera utzi eta herri bakoitzeko hizkerak independenteki aztertzea, aurreiritzirik gabe eta ezinbestean eskualde bati atxikitzeko beharrian gabe.